



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



DEIALDIA

Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan, 9:30etik aurrera

Bihar hasiko da, Arantza Quirogak inauguratuta, CALRE Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarraren Batzorde Iraunkorrek Euskadin egingo duen bilera

Batzordeak aztergai izango du estatutuen aldaketa eta, bestalde, presidentziarako hautagaitzak aurkeztuko dira, bukatu baita Trentoko Parlamentuko presidente Kessler jaunaren txanda.

13:00etan legebiltzarren presidentek Chillida Leku bisitatuko dute, eta 17:30 inguruan bus turistikora igoko dira Donostian zehar ibiltzeko

Ostiralean E-Demokrazia Lan Taldea ere bilduko da. Eusko Legebiltzarra da talde horren buruzagi eta zuzentzailea

Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentek inauguratuko du bihar CALRE Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarraren Batzorde Iraunkorrek, Euskal Ganberak erata, Donostian Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan egingo duen bilera.

Lan-jardunaldia 9:30ean hasiko da, Rafaela Romero Gipuzkoako Batzar Nagusien presidentearen agurrarekin, eta Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentek, bileraren anfitrioi gisa, eta Giovanni Kessler CALREren egungo presidente eta orobat Trentoko Parlamentuko presidente denak, egingo dituzten hasiera-hitzaldiekin.

Aurreikusita dago biharko egunean zehar CALREren Batzordeko kideek eztabaidagai izatea CALRE beraren Erregelamenduaren erreforma, eta halaber ezagutzera ematea presidentetzarako aurkezten diren hautagaitzak, bukatzeaz baitago orain arte Kessler jaunari egokitu zaion agintaldia.

Bihar Gipuzkoako Batzar Nagusietan egingo den jardunaldian parte hartuko dute legebiltzar erregional hauetako presidentek: Trento (Italia), Baden-Württemberg (Alemania), Tirol (Austria), Brusela (Belgika), Azoreak (Portugal), Gales (Erresuma Batua); eta bertan izango da orobat Presidentearen Batzar italiarraren ordezkaria ere. Batzorde Iraunkor honetan Espainiako parlamentu autonomikoen ordezkari gisa parte hartuko dute Katalunia, Extremadura eta Nafarroako parlamentuetako presidentek eta Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, zein, gainera, anfitrioiak baita.

Goiz erdian, 13:00etan, Chillida Leku bisitatuko dute, non artistaren semeak, Luis Chillidak, harrera egingo baitie. Arratsaldean, 17:30 inguruan, autobus turistikoa hartuta Donostian zehar ibiliko dira, hiria pixkat gehiago ezagutzeko.

Ostiralean ere beste lan-jardunaldi bat edukiko dute Europako Eskualdeetako Legebiltzarren presidentek Gipuzkoako Batzar Nagusien instalazioetan. Kasu honetan E-Demokrazia Taldeak egingo du lan-bilera. Talde hori Eusko Legebiltzarrak lideratzen eta zuzentzen du bere presidente Arantza Quirogaren bidez.





Bileretan parte hartuko duten CALREren Batzordeko Iraunkorreko kideak

Giovanni Kessler, Trentoko Parlamentuko presidentea, Italiaren ordezkarri gisa
Peter Straub, Baden-Württembergeko Parlamentuko presidentea, Alemaniaren ordezkarri gisa
Serge Govaert, Bruselako eskualdearen Parlamentuko presidentea, Belgikako ordezkarri gisa
Herwig Van Staa, Tiroleko Parlamentuko presidentea, Suitzaren ordezkarri gisa
Francisco Coelho Cabral, Azoreetako Parlamentuko presidentea, Portugalen ordezkarri gisa
Rosemary Butler, Galesko Parlamentuko presidentea, Erresuma Batuen ordezkarri gisa
Constanza Gatees, Presidentearen Batzar italiarretik
Elena Torres Miranda, Nafarroako Parlamentuko presidentea, COPREPA Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarraren presidentea, Espainiaren ordezkarri gisa
Juan Ramón Ferreira Díaz, Extremadurako Parlamentuko presidentea, COPREPA Autonomia Erkidegoetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarraren aurreko presidentea
Ernest Benach, Kataluniako Parlamentuko presidentea, CALREko Subsidiaritate Taldearen presidente gisa.
Arantza Quiroga, Eusko Legebiltzarreko presidentea, CALREko E-Demokrazia Taldearen presidente gisa

Intereseko orduak

9:30 CALREren jardunaldien inaugurazioa, Arantza Quiroga Eusko Legebiltzarreko presidentearen eta Giovanni Kessler CALREren presidentearen hitzaldiekin Tokia: Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza

13:00 Chillida Lekuren bisita

17:30 Donostiaren bisita bus turistikoan





CONVOCATORIA

A las 9,30 horas en la sede de Juntas Generales de Gipuzkoa

Arantza Quiroga inaugura mañana la reunión del Comité Permanente de la CALRE que se reúne en Euskadi

Abordará el cambio de sus estatutos y se presentarán las candidaturas a presidirla, concluido el turno del Presidente del Parlamento de Trento, Sr. Kessler

A las 13,00 horas los presidentes parlamentarios visitarán Chillidaleku y a las 17,30 aproximadamente recorrerán San Sebastián en el Bus turístico

El viernes se reunirá también el Grupo de Trabajo de E-Democracia que preside y dirige el Parlamento Vasco

La Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga será quien inaugure mañana la reunión que el Comité Permanente de la CALRE (Conferencia de Asambleas Legislativas de Europa) que organiza la Cámara Vasca y que se desarrollará en la sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa, en San Sebastián.

La jornada de trabajo dará comienzo a las 9,30 horas con el saluda de la Presidenta de las Juntas Generales de Gipuzkoa, Rafaela Romero, y los discursos inaugurales tanto de la Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga como anfitriona de esta reunión, y del actual Presidente de la CALRE, el italiano Giovanni Kessler, Presidente asimismo del Parlamento de Trento.

Está previsto que durante el día de mañana los miembros del Comité de la CALRE debatan sobre la reforma del Reglamento de la propia CALRE así como que se den a conocer las candidaturas que opten a su presidencia toda vez que expira el mandato que hasta ahora ha correspondido al citado Sr. Kessler.

En la reunión de mañana en las Juntas Generales de Gipuzkoa estarán presentes los Presidentes de los Parlamentos Regionales de Trento (Italia), Baden-Württemberg (Alemania), Tirol (Austria), de Bruselas (Bélgica), Azores (Portugal) Gales (Reino Unido), el representante de la Conferencia de Presidentes italianos. Representando a los Parlamentos autonómicos españoles en este Comité Permanente asistirán el Presidente del Parlamento de Cataluña, el Presidente del Parlamento de Extremadura, la Presidenta del Parlamento de Navarra , y la del Parlamento Vasco que ejerce además de anfitriona.

A media mañana, a las 13,00 horas visitarán Chillidaleku donde serán recibidos por el hijo del artista, Luis Chillida, y ya por la tarde, 17,30 horas aproximadamente, tendrán la ocasión de conocer un poco más San Sebastián a bordo del autobús turístico que girará una tour por la ciudad.

El viernes también las Juntas Generales de Gipuzkoa serán escenario de otra jornada de trabajo de los Presidentes de Parlamentos de Regiones Europeas. En este caso el del Grupo E-Democracia que lidera y preside el Parlamento Vasco por medio de su Presidenta, Arantza Quiroga.





Asistentes miembros del Comité Permanente de la CALRE

Giovanni Kessler, Presidente del Parlamento de Trento, y actual Pte del CALRE, en representación de Italia

Peter Straub, Presidente del Parlamento de Baden-Württemberg, en representación de Alemania

Serge Govaert, Presidente del Parlamento de la región de Bruselas, en representación de Bélgica

Herwig Van Staa, Presidente del Parlamento del Tirolo en representación de Suiza

Francisco Coelho Cabral, Presidente del Parlamento de las Azores, en representación de Portugal

Rosemary Butler, Presidente del Parlamento de Gales en representación de Reino Unido

Constanza Gatees, por la Conferencia de Presidentes italianos

Elena Torres Miranda, Presidenta del Parlamento de Navarra, como Presidenta de la COPREPA representa a España

Juan Ramón Ferreira Díaz, Presidente del Parlamento de Extremadura, representando a España como Presidente saliente de la COPREPA

Ernest Benach, Presidente del Parlamento de Cataluña, como Presidente del Grupo de Subsidiariedad de la CALRE

Arantza Quiroga, Presidenta del Parlamento Vasco, como Presidenta del Grupo E-Democracia de la CALRE

Horarios de interés

9,30 horas: inauguración jornada de la CALRE, con discursos de la Presidenta del Parlamento Vasco, Arantza Quiroga y del Presidente de la CALRE, Giovanni Kessler. Lugar: Sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa

13,00 horas: Visita Chillidaleku

17,30 horas: Visita SS a bordo del bus turístico

